

Batxilergoa

Printzipio orokorrak

Borondatezkoa da eta bi ikasturteko iraupena du; normalean 16 urtetik 18ra bitartekoa. Hiru Batxilergo mota egongo dira:

- Giza Zientziak eta Gizarte Zientziak.
- Zientziak eta Teknologia.
- Arteak.

Arte Batxilergoa beste bi bidetan banatuko da: bata Irudiari, Arte Plastikoei eta Diseinuari loturik, egungoaren antzekoa, eta beste berri bat, Musika, Dantza eta Arte Eszenikoei buruzkoa.

Irakasgaiak

Berritasunen artean, nabarmentzekoa da Batxilergoko irakasgai komunaren artean esparru zientifikoko arlo bat hartu dela kontuan, *Gaur Egungo Mundurako Zientziak*. Horren bidez, gaur egun garrantzia duten gai zientifikoen oinarriak ezagutu ahal izango dira.

Era berean, Batxilergoko bi ikasturteetako batean, eta irakasgai komunaren barruan, beste irakasgai berri bat irakatsiko da: *Filosofia eta Herritartasuna*.

Modalitateetako irakasgai berriei dagokienez, kasu honetan Artekoak, zehazki esateko, Arte eszeniko, musika eta dantzakoak, hauek dira:

- Musika-azterketa I eta II.
- Anatomia aplikatua.
- Arte eszenikoak.
- Ikus-entzunezko kultura.
- Musikaren eta dantzaren historia.
- Musikaren mintzaira eta praktika.
- Literatura.